

Udal Liburutegian, iaz, euskarazko liburu irakurriena 'Zazpi etxe Frantzian' izan zen

Gaztelerazko liburuen artean, Stieg Larssonen El hombre que no amaba a las mujeres liburua izan zen mailegatuenena.

Euskarazko bigarren liburu arrakastatsuenen, Anjel Lertxundiren Zoaz infernura, laztana! eleberria izan zen.

Azpeitiko Udal Liburutegian helduentzako euskarazko liburuen artean, Bernardo Atxagaren Zazpi etxe Frantzian izan zen irakurriena, 2009.urtean. Gaztelerazkoen artean, berriz, Stieg Larssonen El hombre que no amaba a las mujeres liburua izan zen irakurriena.

Azpeitiko Udal Liburutegiak iazko libururik irakurrienen edo mailegatuenen zerrenda kaleratu berri du.

Helduen literaturan, euskarazko literaturan arrakasta gehien izan duen liburua Bernardo Atxagaren Zazpi etxe Frantzian izan da. Bigarren irakurriena, berriz, Anjel Lertxundiren Zoaz infernura, laztana! eleberria izan da.

Helduentzako gaztelerazko liburuen artean, Stieg Larssonen Millenium trilogiako lehen liburua, El hombre que no amaba a las mujeres izan zen. Bigarren irakurriena, Toti Martinez de Lezearen La flor de argoma izan zen. Umeen literaturan, 0-4 urte bitarteko artean, Kakux kaimana eta bere ahuntz ikaragarria eta Beltxi katua dira liburu irakurrienenak. 5 eta 7 urtekoen artean, euskarazko liburuetan, Nur eta Irlanda gnomoa eta Kika supersorgina Drakularen gazteluan izan ziren irakurrienenak.

Gaztelerazko haurren liburuetan, berriz, Junie B. Jones peluquera eta Junie B. es un espia*-k izan dute arrakasta handiena.

Hamabi urtetik gorako gaztetxo artean, euskaraz, Harry Potter eta sorgin-harria eta Kaixo Kattin izan dira liburu mailegatuenak.

Gaztelerazkoetan, aldiz, *Crepùsculo eta Todo lo que sè del amor* izan dira irakurrienenak.